

Juan Cruz Lakasta

KAZETARIA

## Zaharrak berri

**G**ogoeta 1976 izeneko komunikabideen inguruko euskarazko blog gomendagarrian irakurri nuen, Kerobia taldearen azken diskoaren karietara. Kontua da musika talde iruindarrak bere lan berria, *Materia organikoa eta gainerakoak*, Interneten bitartez musu-truk zabalduko zuela iragarri ostean, blog euskaldun ia guztietan mugarri gabe goreski zutela. Batzuek lehendik ezagutuko eta estimatuko zituzten. Bestetzuek, ez. Musikari iruindarrok teknologia berriak erabiltzea eta copyrightaren aurka egitea aski izan zen euskal blogosferak aho batez txalotu zitzaizkien, euskal musika talderik onena osatuko balute bezala. 1976 izeneko kaiera elektronikoko blogariak zioen teknologia berriak profitatzea, lantzea, bultzatzea oso ongi dagoela, baina ez dela mezua eta bitartekoa nahastu behar. Ez dela bitartekoarekin itsutu behar. Teknologia berriekin gauza txarrak egin daitezkeela, alegia. Eta horrekin ez dut esan nahi, Kerobiarena disko txarra zenik. Xabi, Alberto eta gainontzekoen lan berria itzela da. Baina maila berekoa zen aurrekoa, *Rose Escargot* izeneko, CD moduan karrikaturikoa, eta euskal blogosferak ez zion batere kasurik egin.

Horrekin guztiarekin akordatu naiz Tuterako apezpiku eta Irufeko artzapez-piku On Fernando Sebastianek *Libertad Digital* Interneteko egunkariaren baitan duen blogean



MIKEL SAIZ

abortuaren inguruko gogoeta irakurri dudalarik. PSOEko gobernuak Abortuaren Legea aldatu behar duela-eta, Sebastianek dio legealdaketa egin behar dela, bai, baina abortuak egiten dituzten sendagileak espetxeratzeko. Haren aburuz hiltzaileak dira, “bizitza sakratua” urratzen baitute. Hortxe dago gakoa, “sakratu” horretan. Bizitzaren izaera sakratuarena erlijio katolikoaren dogmetako bat da. Sebastianek bereziki, eta Eliza katolikoko hierarkiak oro har, haien dogmak literalki aplikatu nahi dituzte. Eta dogmak literalki aplikatu nahi dituztenak integristak dira, hemen eta Iranen.

Horixe da sakonean abortuaren edota eutanasiaren inguruko eztabaidaren gibelean dagoena, integrista. Nolanahi ere, abortatzeko edo heriotza duina edukitzeko eskubi-deen aldeko diskurtsoaren gibelean ere bada mamu higuinarririk: oportunismoa. Oportunismo hutsa baita krisi ekonomikoaren itzala gero eta handiago den honetan abortua eta eutanasia hozkailutik ateratzea, zalaparta mediatiko nahasgarria pizte aldera, herritar aurrerakoiak nolabait ere kontent edukitze aldera. Horrela erabakitzen dira abortua eta eutanasia bezalako gai garrantzitsuak Espainian, integristen eta oportunisten arteko eztabaida zalapartatsuen bitartez. Teknologia berriak izanen dira. Mezuak, alta, arunt zaharrak dira, doike. ■

«  
Dogmak literalki aplikatu nahi dituztenak integristak dira, hemen eta Iranen. Horixe da sakonean abortuaren edota eutanasiaren inguruko eztabaidaren gibelean dagoena, integrista»

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Banderak, presoen aldeko manifa galdu du. Herria kontsultatu nahi dutenek hala aginduta. Ez dakit nik zenbat arraunlari diren jendeak presoeci babesa erakusteko gogoaz bat egiten dutenak. Jakin nahi nuke zenbat arraunlari diren parte hartu nahi ez, baina besteek adierazi nahi dieten beroa erakuts diezaieten eragozpenik ez dutenak. Eta azkenik, maiteko nuke jakitea zenbat arraunlari diren erakustaldi horrekin guztiz aurka daudena. Nago, ez dagoela tripulaziorik ekintza horren alde dagoen norbait ez duenik. Izan ere, kontsulta xumeena egiteko gai ez dira izan manifa hori debekatu dutenak. Eta ez

## Kontxako

zuten zaila, hamabost egun hauetan kaia inguruan izan dituzte koadrila ia guztiak bertan entrenatzen. Etxerete-koak hartzeko ere ez dute talenturik izan, bakearen doakoaz mintzo diren ahoberoak direla berau garestitzen dutenak etengabe erakutsiz. Eta bitartean, presoen senideek eta laguntzaileek kilometroak egiten pasa dute asteburua, Kontxatik urrunegi dauzkaten etxe-koak bisitatzeko ahaleginetan. Gehiengoak ez du beti arrazoia, Irun eta Hondarribiako alardeak lekuko. Eta denboraz, inork ez ditu horiek defendatuko, orain frankismoarenak onartzen ez diren bezalaxe. Balza barne. Arraunlariek beharko lukete hitza hartu, norabide egokian.